

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Iruñeko Nafarroako Gobernuaren Kontsumitzailearen Informazioa Bulegoa Orreaga etorbidera pasa da

Orreaga etorbideko 11. zenbakian dago orain, 012 bulegoaren alboan

Lunes, 05 de marzo de 2012

Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko kontseilari eta Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde Roberto Jiménez Allik, eta Gizarte Politika, Kirol eta Gazteriako kontseilari Elena Torres Mirandak aurkeztu dute gaur goizean kontsumitzailearen informazio-zerbitzu berria. Lehen Tomás Caballero parkean zegoen, baina orain Orreaga etorbideko 11. zenbakian izango da.



Jiménez eta Torres kontsumitzailearen informazio-zerbitzu berriaren irekiera-ekitaldian.

Lekualdatze horrek ez dio gobernuari inolako kosturik eragin, Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuak doan utzitako lokal bat erabili baita.

Bulego horretan, herritarrek kontsultak egin eta kexak, erreklamazioak eta salaketak egin ditzakete. Era berean, informazioa eska dezakete kontsumoko bitartekotza eta arbitrajeko prozeduren inguruan, abian diren espedienteen egoeraren inguruan eta muga arteko auzien kanalizazioaren inguruan.

Arreta-ordutegia zabalitzen duen bulegoa astelehenetik ostiralera zabalik izango da astelehenetik ostiralera 08:30etik 18:30era eta larunbatetan, 09:00etatik 14:00etara. Baliabide horrez gain, hala nahi duten herritarrek beren kontsultak posta elektronikoko baten bidez (infoconsumo@navarra.es) edo bi telefono-zenbakiren bidez (848427733 eta 848427758) egin ditzakete.

**2011: 9.940 kontsulta
eta 1.995 erreklamazio**

**Nafarroako Gobernuaren
Kontsumitzailearen Arreta**

Bulegoak 9.940 kontsulta jaso zuen iaz, hilean 829, batez beste. Kopuru horren gehiengoa –kopuru guztiaren % 85- telefoniari eta Interneti lotutakoak ziren. Gainerakoek hainbat arlo hartzen dituen: bankuak, aseguruak, etxebizitza edo merkataritza. 2012ko urtarrilean bakarrik 1.125 kontsulta egin ziren.



Bisitaren irudi bat.

Gainera, 2011n guztira 1.995 erreklamazio izapidetu ziren. Kopuru horretatik, 576 bitartekotzaren bidez ebatzi ziren eta beste 139, arbitrajeko laudoen bidez.

Berrantolatzeko plana

Bulegoa Orreagako etorbidera pasatzea Nafarroako Gobernuaren Kontsumo eta Arbitraje Zerbitzuak diseinatutako berrantolamendu-planaren barnean sartzen da.

Plana kontsumo-bulegoak eskualdeko herri nagusietan biltzeko pentsatuta dago: Iruñea, Tuter, Lizarra, Tafalla, Zangoza, Altsasu eta Doneztebe. Herri horiek, gainera, Arbitraje Batzordeko zerbitzuak izango dituzte bisitak egiteko xedez herritarrak Iruñera joaten beharrik izan ez dezaten.